

Atxurra ta kirtena

Euzko Gaztedi, 15. zk., 1949-11: 15-16.

- Ola Don Keleto!
- Zer darabik, Lontzio?
- Eskutitz bat berori erakustera nator.
- Norena dek?
- Nere seme Joxe'rena.
- Nun dek bera?
- Kijon'en.
- Zer egiten?
- Erdera apurtxo bat ikastera joan zan ba...
- Eta ezer ikasi al dik?
- Bai, guk ulertu ala baño geiago. Egin beza mesede azkeneko arrenkolada oiek irakurtzea.
- Goazen ba. "El que mucho abarca poco aprieta". Ori esan nai al dek?
- Bai jauna. Gure Mañaxi'k berari barkazioa eskatzen diola uste du; nik berriz beste gauza bat uste det.
- Zer ba?
- An, etxe ondoan daukate ur gañean potin txiki bat "barca" deitzen diotena. Esan nion an ez ibiltzeko baña "mucho barca" orrek an asko ibiltzen dala esan naiko duala uste det.
- Ez gizona, ez. Eztik estaten "mucho barca" baizik "mucho abarca".
- Zer esan nai ote du ba?
- Abarca asko duenak alpraeta gutxi bear duela.
- Ori da guzia?
- Orixe.
- Ori ark esan gabe badakigu.
- Eta esango al'uke ik ori erderaz?
- Ez jauna. Ura erderaz ikastera joan zan eta, "vamos" badijoa ikasiaz. Badegu errian bedorri bezelako gizon baten bearra.

Asko aldiz ikusi oi diran lurrian

Atxurra ta kirtena elkarren urrian.

- Egia al'da, aitona, gure baratzan urrea dagoala?
- Urrea?... Zergaitik diozu ori, ume?
- Lengo egunean aitak ala esan ziran, gure baratzako lur azpian urre asko dagoala gordea.

- A... bai! –esan zion aiton zarrak txapela okertzeari utzi gabe, pixkaren bat estutzen zanean egin oi zuan lez.
- Aberastuko al'gera, orduan, aitona?
- Aberastu, ume! Ez al'gera ba aberatzak!
- Automobilik ez degu ordea, Xabier'en aitak bezelako automobil gorri aundia nai det nik!
- Bañan osasun ederra bai ordea, jatekoa ere bai, ta lur ederrak alboan...
- Eta urrea, aitona, urrea?... Gauz asko erosteko urrea nai nuke nik!
- Entzun ume... Zortzi aldiz eskuetako amar biatzak ainbat urte ba'ditut eta egunero-egunero urre biltzen ari naiz mutil-koskorra nitzan eskero...
- Eta zergatik ez du dana batera biltzen?
- Ezin liteke... Eta gañera: zer geratuko litzake zuretzat nik dandana bilduko banuke?
- Gorde, nonbait gorde ta onela betiko izango genduke urrea!
- Ara ba or, ume: Jaungoikoak lur azpian gorde du ta merezi deguan neurrian ematen digu urrea. Or ez du iñork ostuko...
- Eta zergatik ez dio beorrek geiago eskatzen?
- Ez da eskatzea, ume, merezi izatea baizik.
- Eta ortarako zer egin bear da ba... Nik egingo nuke!
- Lana! Zu txikiegia zera egiteko oraindik, egingo dezu gero.
- Eta lan egin gabe ezin al'liteke baratzatik urrea bildu?
- Alperrak langileak ainbat urre bildu al'balezakete, nork landuko luke lurra, nork asia zabaldu, nork igali ta barazkiak bildu?
- Iñork ere ez! Ez litzake bearko!
- Eta zer jango genduke!....
- A! Ez dakit, bañan urrea ez da jaten, e aitona!
- Ez noski. Ta gure lurreko urrea, arto, gari, igali ta barazki biurtu ta urtetan da. Danak urre ori bilatuko ba'luteke ez litzake ludi au ain oker ibiliko.
- Orduan nik ere lurra lantzen ikasiko det, e!, aitona?
- Bai, ume, ta biziro aberatz izango zera beti.

Erritar [Martin Ugalde]